

AUZITEGI GORENAREN ARABERA, ESTATUA KUTSATZEAREN ERANTZULE ZIBILA DA

Koltzaren kalteordainak eman beharko ditu Administrazioak

80ko hamarkadaren hasieran pozoindutako koltza olio hartu zuten milaka lagunek beren kalteordainak jasoko dituztela berretsi zuen atzo Auzitegi Gorenak. Epaiak kutsatzearen erruduntzat jo ditu UCDko administrazioiko bi goi kargu.



Koltza olioarengatik kaltetutakoak Auzitegi Gorenaren aurrean bilduta, atzo goizean.
J.M. ESPINOSA
EFE

Erredakzioa / Donostia

AZKEN 16 urteotan kaltetuak defenditu dituzten abokatuek poza azaldu zuten atzo goizean Auzitegi Gorenaren azken erabakiaren berri ematean. Abokatuek, alta, ezin izan zuten zehaztu Estatuak zenbat diru ordaindu beharko duen eta zenbat diren dirua jasoko duten kaltetuak. Kaltetuak 25.000 eta 30.000 artean izango direla esan zuen Antonio Garcia de Pablos abokatuak, baina ez zuen kopuru zehatzik ematerik izan. Kaltetu horietako batzuek dagoeneko jaso dituzte indemnizazio batzuk, eta diru hori kendu egin beharko da orain pagatu beharreko azken kopurutik. Guztira bilioi erdi pezetatik gora izango dela uste da.

De Pablok onartu egin zuen kaltetu bakoitzari eman beharreko dirua zehaztea oso zaila izango dela, baina zuhurkeriaz ez jokatzeko eskatu zion Estatuari. «Ez dezala kaltetuen kalbarioa beste zazpi edo zortzi urtez luzatu», esan zuen. Auzitegi Gorenak gaurtik aurrera jakinaraziko die defentsako abokatuak kalteordainak banatzeko zer irizpide erabiliko duen.

Auzitegi Gorenaren epaiak bikoiztu egin ditu 1996ko maiatzean Entzutegi Nazionalak erabakitako kalteordainak. Hala, pozoien ondorioz ezintasun handia pairatzen duten 45 milioi pezeta jaso behar-

ko lituzkete eta 35 milioi pezeta edozein lan egiteko gaitasuna galdu dutenek. Ohiko lana egiteko gaitasuna galdu dutenei 12,5 milioi dagozkien; bederatzi milioi 90 egun baino gehiago zaurituta izan zirenei eta 7,5 milioi biktimen senideei. Gai nontzeko kaltetuek 75.000 eta 450.000 pezeta artean jasoko dituzte.

Kalteordainak guztientzat • Auzitegi Gorenaren epaiak zehazten duenez, kalteordain horiek

kutsatutako koltza olio hartzeagatik pozoindu ziren guztiek jaso behar dituzte. Entzutegi Nazionalaren arabera, soilik auzia aurrera eraman zutenei zegokien kalteordaina. Entzutegi Nazionalak zazpi akusatuetatik Manuel Hernandez Bolaños soilik izendatu zuen errudun. Hernandez Aduanetako Laboratorio Zentraleko arduradun zen 1981ean, olio Espainian sartu zenean. Hernandezek olio pozo baten bidez desnaturalizatu izana onartu zuen, eta ez zuen aintzat

hartu olio agian giza kontsumorako erabiliko zutela. Auzitegi Gorenak, berriz, sei hilabete eta egun bateko espetxe zigorra ezarri die Hernandezi eta Federico Povedano Nekazaritza Produktuen Inportazioko arduradun izandakoari. Biei pozoitze handia eragin zuen zuhurtzigitasun larria leporatu die Auzitegi Gorenak. Bi zigortuak Administrazioako langileak zirenez, epaiak Espainiako Estatua pozoitzearen erantzule zibila dela erabaki du.

Hamasei urte beranduago

1981-EKO maiatzaren 1ean hil zen kutsatutako koltza olio hartu zuen lehen biktima Torrejon de Ardoz (Madril) herrian Jaime Vaquerok zortzi urte zituen eta familia osoa kutsatu zen. Hogeia egun beranduago, Jesus Sancho Rof (UCD) orduko Osasun ministroak esan zuen kutsaduraren eragilea «mikroplasma» bat izan zela. Beranduago polemika ederra eragin zuen, kutsatzailea «xomorrotxo» bat zela esan baitzuen. Ekainean, ordea, Osasun ministroak onartu zuen

industrian erabili beharreko olio giza kontsumorako desbideratzean zabaldu zela izurritea.

Ondorengo hilabete eta urteetan, 330 lagun hil ziren (600 akusazioen arabera) koltzaren erruz eta beste 25.000 kalte psikiko eta fisiko larriekin geratu ziren. Kutsadurak Madril inguruko hiri eta auzo pobreenetan izan zuen eragin nagusia, familia nahiko txiroak baitziren sukalderako koltza olio erabili zutenak.

1987ko urteko martxoan hasi zen Entzutegi Nazionalen Koltzaren epaiketa ospe-

tsua. Akusatuaren aulkiari eseri ziren olio tratatu zuten kimikariak eta banatu zuten enpresariak, baina ez, ordea, Administrazioako ordezkariak. Epaietarako hamabost hilabete iraun zuen, baina epaiak inor gutxi utzi zuen gustura. Auzipetutako 38 lagunetatik 13 besterik ez zituzten zigortu, eta jasotako kartzela zigorrak txikiak izan ziren. 1992ko apirilean, ordea, Auzitegi Gorenak asko gogortu zituen; Juan Manuel Bengoetxea akusatu nagusiari, adibidez,

zigorra 20 urtetik 77ra igo zituen.

Koltzaren kutsatzearen bigarren epaiketa 1995eko urrian izan zen eta orduan eseri ziren akusatuaren aulkiari UCDko administrazioako arduradunak. 1996ko maiatzean, Entzutegi Nazionalak zazpi akusatuetatik bakararra aurkitu zuen errudun, baina nahikoa izan zen kalteordainak Estatuaren esku utzi behar izateko. Alde guztiek jarri zuten kasazio errekurtsioa Auzitegi Gorenaren epaiak, oro har, berretsi egin du. X

Untziolako langileek Bresteko herriko etxea okupatu dute

Hastear dauden kaleratzeak salatu nahi dituzte

Berriemaile berezia

Ander Fadda / Naoned

IRAGAN asteartez geroztik Bresten (Bretainia) hazten ari zen tentsioa lehertu egin zen atzo. Untziolako langileek, Alderdi Sozialistak (PS) hauteskunde kanpainen egindako promesa bat betetzen ez duela ikusita, Bresteko Herriko Etxean sartu ziren eta barrualdea txikitu zuten.

Defentsa sektorean industriak gutxitzeko François Fillon ministro ohiak presatutako plana dute sorburu protesta hauek. Bresteko portu handian unti militarren eraikuntzak eta konpontzeak milaka lanpostu ematen ditu, eta haietako asko daude arriskuan. Lehen kaleratzeak gertatu orduko, langileak kalera atera dira eta kanpainen agindutakoa gogorarazi diote Lionel Jospini, hots, Bresten itsasontzi txikiak eraikiko zituztela.

Asteazkenean hasi ziren protestak. Langileek Bresteko zubi bateko trafikoa moztu zuten eta ondoren hiri erdira zabaldu zuten protesta. Untzioetan nagusi den CGT sindikatuko Patrick Appere buru zutela, langileen ordezkariak Pierre Maille Bresteko alkate sozialistarekin eta prefetordearekin elkarrizketatu ziren udaletxean. Bilera porrotean amaitu, eta handik minutu gutxira, ehunen bat langile herriko etxeko beirazko ateak txikitu eta barnera sartu ziren; alkatea eta prefetordea bahitu zituzten eta Matignonekin, Lan Ministerioarekin eta Defentsakoarekin harremanetan jartzera behartu zituzten. Gauean zehar, okupatzaileek alkatearen bulegoko altzariak terraza batera atera eta su eman zieten. CRSak herriko etxera sar ez zitezen, dozenaka beharginek ateak trabatu zituzten.

Atzo goizean, gaiarekin zerikusia zuten ministroak Parisen elkarrizketatu ziren, eta zenbait proposamen egin zituzten, hala nola langile zaharrenak 54 urterekin erretiratzea eta kalean gertatzen direnei hamar hilabetez ikastaroak ematea eta soldataren % 65 ordaintzea. Proposamen horiek eskasak dira CGTren arabera, eta eskatzen du ikastaroa bi urtekoa izatea eta epe horretan beharginek beren soldata -6.500 liberagordetzea.

Brest Debout (Brest Zutik) taldeak -PCF, Berdeak, JOC, CGT eta CFDT- bilduta, manifestazio jendetsua izan zen atzo arratsaldean Bretainiako mendebaldeko hiri horretan. X